



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

2012/13 DENBORALDIA

## 26ZK. DUN ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO GAZTE KLUBEN EUSKAL KOPA

Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketa Planean ezarritakoaren arabera, lehiaketa hau antolatuko du, ondorengo arauei jarraiki.

#### **1. PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gazte maila goreneko lehiaketetan hoberen sailkatu direnak.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Hiru Batean txapelketa motan garatuko da. Partidak 20 minututakoak izango dira bakoitza, kronometratuak. Ekainaren 1an ospatuko da Abetxuko Polikiroldegian, Vitoria-Gasteizen, honako partida ordenarekin

1 Partida	10.30	ARABA - BIZKAIA
2 Partida	11.30	1 PARTIDA GALTZAILEA - GIPUZKOA
3 Partida	12.30	1 PARTIDA IRABAZLEA - GIPUZKOA

Zirkular honetan aurreikusten ez den guztian Areto Futboleko indarrean dagoen arautegian xedatutakoa ezarriko da.

Partida guztiak, nahitaez baloi ofizialarekin lehiatu beharko dira, ASTORE markak areto futbolerako duen modeloarekin.

Taldeek joko aretoan aurkeztu behar dira, gutxienez, partida hasteko finkatutako ordua baino erdi ordu bat lehenago, epe honetan Taldearen ordezkariak Lizentziak aurkeztu behar dizkio epaile eta Kronoari.

... / ...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

- 2 -

### 3. ARBITRAJEAK

AFAEBT-k egingo du Epailen izendapena, eta ordainagiriaren ordainketa Areto Futboleko Euskal Batzordearen kontu izango da.

Hau guztia klub lehiakideei, Lurralde Federakunde eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzordea Teknikoari jakinarazten zaie dagozkion ondoriotarako

2013 ko maiatzak 17, Bilbon

JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

## **ARETO – FUTBOLEKO EUSKAL GAZTE KOPAREN ARAU OROKORRAK, “HIRU BATEAN” IZENeko SISTEMAREN ARABERA.**

### **JOKALARI KOPURUA**

Talde bakoitzak 12 jokalaria aurkeztu ahaliko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten. Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak joko eremuan gutxienez sei jokalaria izan beharko ditu jokatzeko eskuragarri, taldeko ordezkari batez gainera.

### **KANPORAKETAK**

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidarako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

### **BERDINKETAK**

Balizko berdinketak EFF-FVFK indarren duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partiden emaitzaren arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetarako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontutan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlee, bigarren partida jokatzeko aldera.

### **BALOIAK**

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

**-O-O-O-O-O-O-O-O-O-**